

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatu nagusiaren 345/2019 Foru Dekretua, uztailaren 19koa, Diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretua aldatzen duena, zeinaren bidez Arabako Foru Aldundiaren sailak ezarri baitziren 2019-2023 agintaldirako

Uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez, diputatu nagusiak Arabako Foru Aldiko egitura ezarri du 2019-2023 agintaldirako, sailak eta haien eskumen arloak finkatuz, eta zenbait aldaketa sartuz lehendik zeuden zuzendaritza eta administrazio unitateen egiteko, atxikipen eta mendekotasunetan.

Nolanahi ere, aldundiaren sektore publikoak behar bezala jarduteko, beharrezko egiten da aipatutako dekretua aldatzea, sailaren egituren sartzeko datuen babeserako ordezkariaren figura, hain zuzen, Europako Parlamentuaren 2016/679 Erregelamenduak (EE) eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27koak sortua, erregelamendu horren 39. artikuluan eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan finkatutako egitekoak bete ditzan.

Gainera, antolaketa arrazoiak direla eta, Arabako Foru Suhiltzaileak (Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) erakunde autonomoa Lurralde Orekaren Sailari atxikitzen zaio.

Azkenik, sailen egitura organiko berria geroago onartuko bada ere, aldatzen dira Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzaren eta Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Zuzendaritzaren izenak; hemendik aurrera Kultura Zuzendaritza eta Bide Azpiegituren Zuzendaritza izango dira, hurrenez hurren.

Horregatik, dagozkidan eskumenak baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren xedapenetako bigarrena aldatzea. Hara nola geratzen den idatzita:

- Hona hemen Diputatu Nagusiaren Sailaren eginkizunak eta eskumenak:
- Erakundea ordezkatzeta.
- Gobernuaren jarduna zuzentzea eta sailak koordinatzea.
- Gizarte eta erakunde harremanak.
- Gobernuaren bozeramailletza eta komunikazioaren ardura.
- Legezketasun kontrola eta fede publikoa.
- Lege aholkularitza eta abokatu defentsa.
- Batzar Nagusiekiko harremanak.
- Miñoiak.
- Herritarren Arreta, Erregistro Orokorra eta ALHAO administrazioa.
- Berdintasunerako politika.
- Immigrazio politika.

- Lankidetzak.
- Giza eskubideak.
- Gardentasuna eta herritarren parte-hartzea.
- Datu pertsonalen babesaren arloko indarreko araudia betetzen dela ikuskatzea barrutik.
- Lurralde Historikoa kanpoan ezagutzera ematea.
- Euskara politikak.
- Ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak.

Bigarrena. Diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren xedapenetako seigarrenari 2. apartatua gehitzea. Hara nola geratzen den idatzita:

2. Lurralde Oreaken Sailari atxikitzen zaio Arabako Foru Suhiltzaileak (Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) erakunde autonomoa.

Hirugarrena. Diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren xedapenetako hamahirugarrenari gehitzea 2.5 apartatua. Hara nola geratzen den idatzita:

2.5. Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritza Kultura Zuzendaritza izango da hemendik aurrera.

Laugarrena. Diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren xedapenetako hamahirugarrenari gehitzea 2.6 apartatua. Hara nola geratzen den idatzita:

2.6. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Zuzendaritza Bide Azpiegituren Zuzendaritza izango da hemendik aurrera.

Bosgarrena. Foru dekretu hau ematen den egunean bertan sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 18a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE